



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2005eko otsailaren 7a

8. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Foru Lege proiektua, Nafarroako 2003ko kontu orokorre buruzkoa (4. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Jabeldura, familia eta lan bizitza bateragarri egiteko politikei buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak egina (6. or.).

—Jabeldura, osasun arloko itxaron zerrendengatik herritarrek luzatutako kexei buruzkoa, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak egina (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da baliogabetu eta indarrrik gabe utz dezan Nafarroako Foru Diputazioak 1974ko abenduaren 28an hartu zuen erabakia, zeinaren bidez Nafarroaren adopziozko seme izendatu baitzen Francisco Franco Bahamonde. Aralar parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gorteek adierazten dute beharrezkoa dela autogobernuan sakondu eta aurrera egiteko bideak ezartzea. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da udal langileak euskalduntzeko programen eta euskara teknikarien finantzaketa berma ditzan. Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gau-eskolen egungo eskaintza eta finantzaketa berma ditzan. Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Toki Administrazio Departamentua premiatzen da toki entitateek ematen dituzten zerbitzuak azter ditzan. Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak aurkeztu du (12. or.).

—Adierazpen politikoa, sexu adierazpenen aniztasunari onarpen soziala ematekoa. Eledunen Batzarrak onetsia (13. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

—Galdera, Nafarroako ibaietan angulen populazioa indartzeko lanei buruzkoa, foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak egina (14. or.).

- Galdera, Foruzaingoko praktiketako funtzionarioei buruzkoa, foru parlamentari Maria Gracia Iribarren Ribas andreak egina (15. or.).
- Galdera, mendialdeko eskualdeetako abeltzaintza azpiegituretarako laguntzei buruzkoa, foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak egina (15. or.).
- Galdera, Atlante Proiektuaren koordinazioari buruzkoa, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (16. or.).
- Galdera, Atlante Proiektua aplikatzeko egutegiari buruzkoa, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (17. or.).
- Galdera, Atlante Proiektuan aipatzen diren orientabideei buruzkoa, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (18. or.).
- Galdera, Atlante Proiektuaren akordio edo konpromisoei buruzkoa, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (18. or.).
- Galdera, Atlante Proiektuaren jarraipen batzordeari buruzkoa, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (19. or.).
- Galdera, Orkoiengo Argia FOSHEZarentzako dirulaguntza jaitsi izanari buruzkoa, foru parlamentari Félix M<sup>a</sup> Taberna Monzón jaunak egina (19. or.).
- Galdera, farmazia politikari buruzko plan estrategikoaren inguruan lurralde arteko kontseiluan defenditutako jarrerari buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (20. or.).
- Galdera, Nafarroako osasun gastuak 2004. urtean izandako bilakaerari buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (20. or.).
- Galdera, Sodena enpresa publikoaren langile gastuei buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (21. or.).
- Galdera, Sodena enpresa publikoaren administrazio kontseiluei buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (22. or.).
- Galdera, Gobernu kideek parte hartu duten sozietate eta entitate publikoetako bilkurei buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (22. or.).
- Galdera, Natural Climate System enpresa publikoari buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (23. or.).
- Galdera, Ekonomia eta Ogasun departamentuak 2004an udalei kapital transferentzia gisa emandako diru kopuruei buruzkoa, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egina (24. or.).
- Galdera, Fiteroko monasterioko fatxada nagusian dagoen gerra zibilaren inguruko plakari buruzkoa, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egina (24. or.).
- Galdera, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak 2004an udalei kapital transferentzia gisa emandako diru kopuruei buruzkoa, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egina (25. or.).
- Galdera, Toki Administrazioko Departamentuak 2004an udalei kapital transferentzia gisa emandako diru kopuruei buruzkoa, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egina (25. or.).
- Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak 2004an udalei kapital transferentzia gisa emandako diru kopuruei buruzkoa, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egina (26. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuak 2004an udalei kapital transferentzia gisa emandako diru kopuruei buruzkoa, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egina (26. or.).
- Galdera, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak 2004an udalei kapital transferentzia gisa emandako diru kopuruei buruzkoa, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egina (27. or.).
- Galdera, Osasun Departamentuak 2004an udalei kapital transferentzia gisa emandako diru kopuruei buruzkoa, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egina (27. or.).
- Galdera, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak 2004an udalei kapital transferentzia gisa emandako diru kopuruei buruzkoa, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egina (28. or.).
- Galdera, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak 2004an udalei kapital transferentzia gisa emandako diru kopuruei buruzkoa, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egina (28. or.).
- Galdera, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak 2004an udalei kapital transferentzia gisa emandako diru kopuruei buruzkoa, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egina (29. or.).

- Galdera, Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentuak 2004an udalei kapital transferentzia gisa emandako diru kopuruei buruzkoa, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egina (29. or.).
- Galdera, 2004. urteko prestakuntza planari buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (30. or.).
- Galdera, Salamancan egin den “Espainiako kultur ondarearen batasunari buruzko lan jardunaldia” delakolari buruzkoa, foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak egina (31. or.).
- Galdera, terrorismoak kaltetutakoei emandako laguntzei buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (32. or.).
- Galdera, Excavaciones Majo enpresari irekitako zehapen espedientei buruzkoa, foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (32. or.).
- Galdera, ingurumen arloko zehapen espedienteak ebatzi bitartean hartu beharreko neurriei buruzkoa, foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (33. or.).
- Galdera, Nafarroako futbol selekzioak eta Marokokoak jokaturako partidaren antolakuntzan Nafarroako Gobernuak emandako laguntzari buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (34. or.).
- Galdera, 2005eko lehen bilkuraldian zenbait foru lege proiektu igortzeari buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (34. or.).
- Galdera, zilbor hestearen trasplanteari buruzkoa, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egina (35. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Argentinara eginiko bidaiari buruzkoa. Erretiratutako galdera (36. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Lege proiektua, Nafarroako 2003ko kontu orokorrei buruzkoa.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza birrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Gobernuak, 2004ko irailaren 6an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako 2003ko kontu orokorrei buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura. Hari buruz, Comptos Ganberak txosten bat eman zuen, 2004ko abenduaren 1eko 103. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zena.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 154. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarra entzun ondoren, hona

### ERABAKIA:

**1.** Nafarroako 2003ko kontu orokorrei buruzko Foru Lege proiektua Osoko Bilkuran irakurketa bakarreko jardunbidez bideratzea.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2005eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

## **Nafarroako 2003ko kontu orokorrei buruzko Foru Lege proiektua**

### ZIOEN AZALPENA

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluan xedatutakoari jarraituz, Diputazioari dagokio aurrekontu orokorrak prestatu eta kontuak formalizatzea Parlamentuan aurkezteko, bertan eztabaidatu, zuzendu eta, hala erabakiz gero, onets daitezten. Hori guztia, foru legeetan ezarritakoari jarraituz.

Nafarroako ogasun publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen 110. artikulua Ekonomía eta Ogasun Departamentuaren esku

uzten du Nafarroako kontu orokorren formulazioa. Horiek, behin Nafarroako Gobernuak onetsitakotan, Nafarroako Parlamentura igorri behar dira foru lege proiektu bidez, 8/1988 Foru Legearen 115. artikulua hala agintzen baitu.

Nafarroako Gobernuak eginak ditu 2003ko ekitaldiko kontu orokorrei buruz adierazitako tramiteak, Comptos Ganberak emana du behar den irizpena eta tramitatua dago Nafarroako 2003ko kontu orokorrei buruzko Foru Lege proiektua Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 151. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz. Bidezkoa da, beraz, foru lege hori onestea.

**Artikulu bakarra.** Onetsi egin dira Nafarroako 2003ko kontu orokorrak, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak formulatu eta Nafarroako Gobernuak onetsiak, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legearen 113., 114. eta 115. artikuluetan ezarritakoaren arabera. Ondoko agiritan ageri da haien edukia:

I. LIBURUKIA. Hurrengoak biltzen ditu: Nafarroako Parlamentuaren kontuak, Comptos Ganberarenak, Arartekoarenak, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta bere erakunde autonomoen kontuak, sozietate publikoen kontuak eta Nafarroako 2003ko aurrekontu orokorren exekuzioaren azterketa. Liburuki honetan, besteak beste, agiri hauek jaso dira:

- Gastuen eta dirusarreraren aurrekontuen likidazioko egoera-orriak.
- Egoeraren balantze orokorra.
- Emaizten kontua.
- Funtsen jatorriaren eta aplikazioaren egoera-orria.
- Diruzaintzako kontu orokorra.
- Zorpetzearen kontu orokorra.
- Ondasun, eskubide eta obligazioen inbentarioa.

– Aurreko ekitaldietatik kobratu beharreko esku-bideen eta ordaindu beharreko obligazioen bilakera eta egoera erakusten dituen egoera-orria.

– Ekitaldian, erabilera orokorrari lotutako jabari publikoko ondasunetan egindako inbertsioak erakusten dituen egoera-orria.

– Datozen ekitaldien kargura hartutako konpromisoen egoera orria.

II. eta III. LIBURUKIAK. Nafarroako Parlatuentuaren, Comptos Ganberaren, Arartekoaren eta sozietate publikoen kontuen garapena.

IV. LIBURUKIA. Nafarroako aurrekontu orokorren likidazioa eta finantza-egoerak zehazten dituzten xehetasun-agiriak, 2003ko ekitaldiaren itxieran.

---

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Jabeldura, familia eta lan bizitza bateragarri egiteko politikei buruzkoa.**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak familia eta lan bizitza bateragarri egiteko politikei buruz aurkeztu zuen jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen. Legebiltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **JABELDURAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduren 179. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako jabeldura hau, familia eta lan bizitza bateragarri egiteko politikei buruzkoa, hurrengo Osoko Bilkura batean tramita dadin eskatu du.

Jabelduraren azalpena

Lan merkatuan sartzeko emakumeek duten arazoetako bat da zaila dela familia eta lan bizitza

bateragarri egitea. Zailtasun horrek eta emakumeen langabezia-tasak eragin nabarmena dute familia-ekonomian.

Nafarroako Gobernuak eta sindikatuek sinutako akordioetan familia eta lan bizitza bateragarri egiteko neurriak jasotzen dira.

Akordio horiek Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariaren uztailaren 5eko 82/2001 eta urriaren 3ko 105/2002 foru aginduetan dute lege-babesa; izan ere, horien bidez sustatu egiten da legezko zainketa dela-eta langileek lanaldia murriztea eta enpresek haiek ordezkatzearren emakumeak lanaldi partzialean kontratatzea, eta artikuluetan aldaketa batzuk sartzen dira laguntzak errazago aplikatzeko eta aurkezten diren eskabideei erantzun eraginkorra eman ahal izateko.

Araudi hori betetzeko arazo batzuk izan direnez, Sozialisten taldeak familia eta lan bizitza bateragarri egiteko politikei buruzko jabeldura hau aurkeztu du.

Iruñean, 2005eko urtarrilaren 14an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

## **Jabeldura, osasun arloko itxaron zerrendengatik herritarrek luzatutako kexei buruzkoa.**

### *IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak osasun arloko itxaron zerrendengatik herritarrek luzatutako kexei buruz aurkeztu zuen jabelduraren biderapena onestea erabaki

zuen. Legebiltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### JABELDURAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko jabeldura aurkeztu du, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Parlamentu-talde honek herritarren keak, gure erkidegoan ematen den osasun arloko laguntzarekin nahiz itxaron zerrendekin lotutakoak, ezagutu ditu. Konpondu beharreko arazoan zerrenda luzea da, erresonantzia magnetiko bat egin ahal izateko urtebete itxaron behar izatetik hasi eta hernia bat dela-eta operatzeko 5 hilabete itxaron behar izatera arte, jakinik, itxaron zerrendan ezarritako ordena kontsultatu ondoren, aurretik 460 pertsona daudela. Egoera ez da hobea Ubarmin Klinikara lehen kontsulta egitera joan beharra dagoenean, klinika horretan bi hilabetez itxaron behar baita lehen kontsulta egin arte, eta operazio erraz bat egin arte, ordea, 6 edo 8 hilabete.

Bularreko minbiziko operazio bat egin zaien pertsonen azterketarekin zer gertatzen den aztertzeko baldin badugu, onkologoak agindutako bisita, 6 hilabeteren buruan egin behar zena, 10 hilabeteren buruan egin ohi da.

Auzia ez da hor bukatzen; izan ere, gaixoak azterketa behar den garaian egin dakion eskatzen duenean, erantzuna ematen duen pertsonak adierazten dio ez dela ezer gertatzen azterketa atzeratzen baldin bada, eta adierazten dio itxaron zerrenda estrukturala dela eta horregatik eman behar diola txanda onkologoak ezarritako pauta baino

lau hilabete beranduago; alegia, erreklamazioa jasotzen duen pertsonak ezartzen ditu epeak.

Bukatzeko, parlamentu-talde honek adierazi nahi du ez dagoela ados Tuterako Reina Sofía ospitalean dialisia egin behar zaien gaixoak artatzeko ematen duten konponbidearekin. Sala berri bat atondu da dialisia behar duten giltzurrunetako gaixoei zerbitzu hobea emateko, baina ez dute langile gehiago jarri gaixo horiek artatzeko.

Ez dugu zalantzan jartzen osasun publikoko langileen profesionaltasuna, eta zerbitzua ahalik eta hobekien emanen dutela, baina hori ez da oztopo guk zerbitzu berri horretan behar adina langile egon dadila exijitzeko, hain zuzen ere hori delako profesionalek eskatu dutena -eskaria otsailko hirugarren astean aurkeztu zuten- eta gaur arte bete ez dena.

Horiexek dira herritarrek, hala gaixoei nola profesionalek, planteatu eta gure parlamentu-taldeak jasotako erreklamazio eta kexetako batzuk. Gure ustez, eskari horiek bidezkoak dira, eta demagogiaren erori gabe esan daiteke Gobernu honek darabilen eta besteak beste Osasun Departamentuak pairatzen duen gastuen murrizketa-politikaren ondorio direla.

Hori dela eta, gure taldeak jabeldura hau aurkeztu dio Gobernuari, jakiteko zer eginen duen hemen azaldutako arazoak, herritar askori eragiten dietenak, konpontzeko.

Iruñean, 2005eko urtarrilaren 24an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

---

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da baliogabetu eta indarririk gabe utz dezan Nafarroako Foru Diputazioak 1974ko abenduaren 28an hartu zuen erabakia, zeinaren bidez Nafarroaren adopziozko seme izendatu baitzen Francisco Franco Bahamonde.**

### *ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Aralar parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, ezeztatu eta indarririk gabe uzten da Nafarroako Foru Diputazioak 1974ko abenduaren 28an hartu zuen erabakia, zeinaren bidez Nafarroaren adopziozko seme izendatu baitzen Francisco Franco Bahamonde".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroa-

ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahal dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2005eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**MOZIOAREN TESTUA**

Aralar parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Aurtengo 28an bete dira hain justu ere 30 urte Nafarroako Foru Diputazioak, memento eta egun ezohiko batez, une hartarako gizarte osoa kontra zeukan eta gainbehera zetorren erregimen bateko ordezkaria Nafarroaren adopziozko seme izendatu zuenetik.

1975eko apirilaren 23an Nafarroako Foru Diputazio oso-oso Madrilera joan zen eta Nafarroaren adopziozko seme titulua zeraman pergaminoa eta espresuki egindako domina eman zizkion Francori. Diputazioaren egun bereko, 1975eko apirilaren 23ko ohar batean esaten zen Diputazioak "poz neurrigabez jarri dituela Buruzagiaren eskuetan, errespetuz eta zirrara batez jarri ere, haren zerbi-

tzu-orri paregabearekiko eta berorren gorentasunean biltzen diren merezimendu mukuruekiko begiramen leialaren ikurrak". Hiru egun beranduego, 1975eko apirilaren 26an, Francok salbuespen egoera ezarri zuen berriz ere Gipuzkoan eta Bizkaian.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Gobernua premiatzea baliogabetu eta indarrik gabe utz dezan Nafarroako Foru Diputazioak 1974ko abenduaren 28an hartu zuen erabakia, zeinaren bidez Nafarroaren adopziozko seme izendatu baitzen Francisco Franco Baha-monde.

2. Baliogabetu eta indarrik gabe uztea Foru Kontseilu Administratiboak 1944ko ekainaren 3an hartu zuen erabakia, zeinaren bidez erabaki baitzen Nafarroako boluntariotzaren urrezko domina sortzea soil-soilik Franco diktadoreari emateko.

Iruñean, 2004ko abenduaren 23an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gorteen adierazten dute beharrezkoa dela autogobernua sakondu eta aurrera egiteko bideak ezartzea.**

*IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gorteen adierazten dute beharrezkoa dela autogobernua sakondu eta aurrera egiteko bideak ezartzea".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2005eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Eusko Legebiltzarrak lege proposamen bat onetsi du berrikitan Diputatuen Kongresura igortzeko. Horren bidez, Espainia eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko elkartasunaren estatutu politiko berri bat planteatzen du; estatutu berri horrek indarrean dagoen autonomia estatutua, Eusko Legebiltzarrak eta Kongresuak onetsi zutena, ordezkatu luke. Estatutuak eraberritzeari begira Espainiako estatuan bizi den une historikoa kokatzen da prozesu hori. Izan ere, Katalunia, Andaluzia, Valentzia -besteak beste-, zein bere autonomia estatutua eraberritzea eskatzen ari



dira, autogobernu araubidea hobetu eta sakontze-arren. Nafarroan, xede bereko ponentzia bat eratu da. Espainiako Gobernuak Estatuaren lurralde egitura, besteak beste, aldaraziko luketen konstituzio-eraberritzeak sustatu ditu. Kataluniaren kasuan adierazi du errespetatu eginen duela alderdi independentistak parte hartzen ari diren prozesuan Kataluniako Parlamentuak onetsitakoa. Beraz, munta handiko eginkizuna dugu aurrean, elkarrizketa eta borondate on ugari eskatzen duena Estatu federalago bat eraikitzen joateko. Lurralde ereduari buruzko eztabaida PPK baino ez du ukatzen.

Halere, euskal eraberritzearen kasuan digestioa pisua egiten duten zenbait osagai daude. Lehendabizikoa da indarkeria gaitzesten ez duen indar politiko bat lege proposamenaren alde dagoela. Horrek ez du legez baliogabetzen, baina politikoki hipotekatzen du. Kritikarako bigarren osagaia da muntako edozein eraberritzek adostasun zabalaren izan behar duela bai erkidegoan bertan bai Espainia osoan ere. Denok dakigu ezen egungo esparru politiko eta legalak iraunen badu erabaki esparru ezberdinak konpartitu eta aintzatetsi beharra dagoela: Europakoa, Espainiakoa, eta Nafarroakoa, Kataluniakoa, Euskadikoa...

Eraberritze proiektu hau, ordea, ez da EAEn bizi diren identitate ezberdinen artean adostu, Gernikako estatutua ez bezala. Espainiako estatuko eragile politikoekin ere ez da alde zuzenik hitz egin, nahiz eta hori izan Konstituzioan edozein aldaketa egiteko lehen pausoa.

Horregatik aurkeztu dugu ondoko erabaki proposamena:

1. Nafarroako Gorteek adierazten dute beharrezkoa dela Espainiako erakunde zentral eta autonomikoetan bideak ezartzea autogobernua aurrera egin eta sakontzeko, elkarrizketatik eta ahalik eta adostasun sozial eta politiko zabalenetik abiatuta, estatu federal baterantz joateko. Estaturua eraberritzeko Kataluniako eta are Andaluziako prozesuak jarduteko modu onaren adibide dira.

2. Gorte hauek Diputatuen Kongresua premia-tzen dute Euskadiko estatutua eraberritzeko Lege proposamena onestea eragotz dezan.

3. Nafarroako Parlamentuak bi aldeak, Espainiako Gobernua eta Eusko Jaurlaritza, animatzen ditu estatutu-akordio zabal, sakon eta demokratiko batera iristeko elkarrizketari ekin diezaioten.

4. Nafarroako Gorte ek autogobernuari buruzko ponentzian hasitako prozesua babesten dute, eta uste dute beharrezkoa dela aurrera egitea Nafarroako herriari kontsulta eginez bukatuko den Nafarroarentzako estatutu-prozesu berri batean.

5. Nafarroako Gorteek Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroaren arteko erakunde-harremanerako bideak sustatuko dituzte, bi aldeen autonomiatik eta erabaki esparru berezitik abiatuta.

Iruñean, 2005eko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: Félix Taberna Monzón

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da udal langileak euskalduntzeko programen eta euskara teknikarien finantzaketa berma ditzan.**

### *EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da udal langileak euskalduntzeko programen eta euskara teknikarien finantzaketa berma ditzan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara

dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahaliko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2005eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

## MOZIOAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnalek, talde horren eleduna den aldetik, eta Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

### Zioen azalpena

Udalek euskara normalizatzearen eta gure hizkuntza sustatzearen egiten duten lana funtsezkoa da legedia indardunean jasota dauden helburu horiek lortzeko.

Herritarrengandik gertuen dagoen erakundeak eginkizun erabakigarri bat bete du eta betetzen du, zalantzarik gabe, gure hizkuntza zabaldu eta herritarrek hizkuntza eskubideak baliatu ahal izatea ahalbidetzeko orduan.

Halatan, une honetan indarrean da Nafarroako Gobernuaren eta toki entitateen arteko lankidetzaren hitzarmen bat, 14 udal eta 6 mankomunitateren atxikimendua duena eta toki entitateentzako zenbait dirulaguntza eta programa ezartzen dituena horiek normalizazio eta sustapen lanetan jarraitu ahal izan dezaten.

Nafarroako aurrekontu orokorretako kontusaila % 45 jaitsi izanak behin betikoz eragotziko du euskararen arloan orain arte ematen ziren zerbitzuak, herritarrek eskatzen zituztenak eta legez zegozkienak, hemendik aitzina eman ahal izatea. Halatan, finantzaketarik gabe gelditu eta desager daitezke udaletan zeuden euskara teknikarien lanpostuak, bai eta udal langileak euskalduntzeko programak, sustapen programak eta abar ere.

Parlamentu-talde honek zuzenketa bat aurkeztu zuen aurrekontuetan. Haren bidez proposatu genuen diru-izendapen egoki bat izan dezan berriz ere "Nafarroako udal eta kontzejuntzako laguntzen programa euskararen arloan" izeneko kontusailak, batik bat kontusail horrek hornitzen baitu aipatu lankidetzaren hitzarmena, euskararen normalizazioari eutsi eta aurrera egin ahal izateko.

Gobernuari sostengua ematen dioten taldeek, ordea, ez zuten aintzat hartu parlamentu-talde honen ekarpena, eta UPN eta CDNren botoek atzera bota zuten zuzenketa.

Gure ustez, lankidetzaren hitzarmenari esker toki entitateek emandako zerbitzua interes orokorrekoa da, eta erakunde publikoek haren funtzionamendu eta finantzaketa bermatu behar dute; izan ere, aintzatetsi beharra dago toki entitate atxikiek normalizazioaren eta sustapenaren mesedetan egin duten lana, ziur baikaude helburu horiek lortzeko egiteko dagoen bidea eginen bada ezin direla diru-izendapena murriztu eta zerbitzuak kendu.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiatzen du gutxienez ere 2004ko parametro beretan berma dituzten udal titulartasuneko euskarazko hedabideen garapenerako finantzaketa eta lankidetzaren hitzarmena, euskara sustatzeko kanpainak, udal langileak euskalduntzeko kasuan kasuko programak eta ondotik zehazten diren toki entitateentzako euskara teknikarien finantzaketa: Aezkoako Batzarra, Antsoaingo Udala, Arangurengo Udala, Aurizko Udala, Barañaingo Udala, Baztango Udala, Berriozarko Udala, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Burlatako Udala, Lizarrako Udala, Uharteko Udala, Egues-Esteribar-Arangurengo Mankomunitatea, Malerrekako Mankomunitatea, Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatea, Orkoieneko Udala, Garesko Udala, Sakanako Mankomunitatea, Zaraitzu Ibarreko Batzarra, Tafallako Udala, Atarrabiako Udala eta Zizur Nagusiko Udala.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiatzen du hitzarmenari atxikitzeko eskaria egiten duten toki entitateei horretarako laguntza nahiz finantza-estaldura eman diezazkien.

Iruñean, 2005eko urtarrilaren 13an

Eleduna: Begoña Errazti Esnal

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da gau-eskolen egungo eskaintza eta finantzaketa berma ditzan.**

### *EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da gau-eskolen egungo eskaintza eta finantzaketa berma ditzan."

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahal dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2005eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **MOZIOAREN TESTUA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnalek, talde horren eleduna den aldetik, eta Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Gure gizartearentzat funtsezko helburu bat da euskararen normalizazioa eta gure hizkuntza dela-eta herritarrek dituzten eskubideak baliatu ahal izatea.

Halatan, euskara ikasi ahal izan dadin egin beharreko ahaleginek bermatu egin behar dute hezkuntza-sistemako maila guztietara erraztasunez sartu ahal izatea, lanpostuan euskalduntzea eta helduek euskara ikastea.

Gaur egun, eskaintza publiko eskasa dago helduek euskara ikasi ahal izateko, eta hutsune hori AEK eta IKA bezalako taldeek betetzen dute, euskara ikasteko aukera behar adinako malgutasunez eskaintzen baitute; euskara normalizatzeko fun-

tsezko zerbitzua ematen dute eta helduei Nafarroako berezko hizkuntza ikasteko dagokien eskubi-dea baliatzeko aukera ematen diete.

Orain arte, betetzen duten eginkizunaren garrantziari erreparatuta, diru publikoen kutxak aipatu hezkuntza zerbitzuak finantzatzen lagundu du. Halere, aurrekontuei buruzko eztabaidaren ondoren, kezkatuta ikusten dugu "Gau-eskolentzako dirulaguntzak" izeneko kontusaila 2004an esleiturik zituen 528.957 euroetatik 180.000 euro izatera iragan dela 2005ean, eta diru horrekin nekez finantzatu ahal izanzen dituzte eskaintzen ari diren zerbitzuak.

Parlamentu-talde honek zuzenketa bat aurkeztu zuen aurrekontuetan, zeinaren bidez proposatu genuen aipatu kontusailak diru-izendapen egoki bat izan dezan berriz ere euskararen normalizazioari eutsi eta aurrera egin ahal izateko. Gobernuari sostengua ematen dioten taldeek, ordea, ez zuten aintzat hartu parlamentu-talde honen ekarpena, eta UPN eta CDNren botoek atzera bota zuten zuzenketa.

Gure ustez, talde horiek orain arte eman duten zerbitzua interes orokorrekoa da, eta erakunde publikoek haren funtzionamendu eta finantzaketa bermatu behar dute; izan ere, aintzatetsi beharra dago AEK eta IKAk normalizazioaren mesedetan egin duten lana, ziur baikaude helburu horiek lortzeko egiteko dagoen bidea eginen bada ezin direla diru-izendapena murriztu eta zerbitzuak kendu.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Gau-eskolen egungo eskaintza eta finantzaketa berma ditzan hemendik aurrera, gutxienez ere 2004ko eskaintza eta diru-izendapen berarekin.

Iruñean, 2005eko urtarrilaren 17an

Eleduna: Begoña Errazti Esnal

## **Mozioa. Horren bidez, Toki Administrazio Departamentua premiatzen da toki entitateek ematen dituzten zerbitzuak azter ditzan.**

### *EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Toki Administrazio Departamentua premiatzen da toki entitateek ematen dituzten zerbitzuak azter ditzan."

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalak dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2005eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **MOZIOAREN TESTUA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnalek, talde horren eleduna den aldetik, eta Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioak

Toki entitateen autonomia eta finantzaketa da erakunde-egitura arrazoizkoagoa egiteari dagokionez Legebiltzar honek presaz jorratu behar duen auzietako bat.

Edozein modutan ere, erkidegoko toki-mapak egoera hain konplexu eta anitzak dituen egungo finantzaketa-sistemari dagokionez, funtsak banatzeko aplikatzen diren irizpideak eta arau orokorrak ez datoz bat gorde beharreko justizia eta proportzionaltasun irizpideekin. Horren adibide garbia

dira zerbitzua bere zentsua osatzen duten herritarrei baino herritar gehiagori ematen dieten udalak, Nafarroako Gobernuarengandik zentsuaren arabera zenbait baliabide jasotzen dutenak.

Erkidegoko udal batzuek herritar gutxiago izan ohi dituzten beste udal batzuetako herritarrei ematen dizkiete zerbitzuak, eta hori kontuan hartu beharra dago funtsen banaketa zuzen egiteko. Iruñean, esaterako, "hiriburutza agiria" izenekoaren bidez orekatzen da egoera; parlamentu-talde honen ustez, ordea, beharrezkoa da, desberdintasunak desberdintasun, antzeko egoeran dauden beste herri batzuei ere zabaltzea aitortza hori.

Halatan, gure ustez, presako azterlan bat egin behar da, aipatu herrien egoera aztertuko duena, funtsen banaketa arrazoizkoagoa egiteko arlo horretan.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Toki Administrazio-ko Departamentua premiatzen du azterlan bat egin dezan, aztertzeko zer toki entitateek eskaintzen dizkieten zerbitzuak bereak diren herritarrei baino herritar gehiagori, zein diren zerbitzu horiek eta zer-nolako finantza-zama sortzen duten, Toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen Foru Lege proiektuan aintzat hartua izan dadin.

2. Azterlan hori Legebiltzar honetan aurkeztu eta eztabaidatuko da.

Iruñean, 2005eko urtarrilaren 19an

Eleduna: Begoña Errazti Esnal

## **Adierazpen politikoa, sexu adierazpenen aniztasunari onarpen soziala ematekoa.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2005eko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Gorteek adierazten dute garaia dela sexu adierazpen aske, indibidual eta guztieki-ko begirunetsuen aniztasunari onarpen sozial

osoa emateko. Garaia da erabiltzen ditugun kultur parametroak, afektibitatearen nahiz sexuaren aldetik harremanak izateko moduak neurtzeari buruzkoak, aldatzeko.”

Iruñean, 2005eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

---

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, Nafarroako ibaietan angulen populazioa indartzeko lanei buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS ETXEGARAI ANDUEZA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak egindako galdera, Nafarroako ibaietan angulen populazioa indartzeko lanei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Askotariko parlamentu-taldeko foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2000. urteko otsailean, Nafarroako Gobernuko Ingurumen Departamentuak angulen populazioa berritu zuen Ega, Cidacos, Arga eta Aragoi ibaietan, batez beste 7 zentimetro zituzten Behobi ibai-ko 38.600 arrainkume jarrita ibai horietan.

Orduan esan zenaren arabera, Ega ibaiko arrain populazioaren berritzea Lerinen eta Andosillan egin zen, hango uretan 11.580 angula-kume jarri baitziren, herri bakoitzean 5.790. Cidacos ibaian, Tafalla parean, 3.860 ale jarri ziren guztira.

Arga ibaiaren uretan, esan zenaren arabera, 11.580 angula-kume askatu ziren Azkoienen eta Larragan, 5.790 herri bakoitzean. Beste 11.580 angula-kume jarri ziren Aragoi ibaian, Zarrakaztelu

eta Martzilla parean, hor ere herri bakoitzean 5.790.

Departamentuak berak adierazi zuen orduan ezen, nahiz eta lehengoratzeko plan berriazkorik egon ez, Ingurumenzaintzak "aldian-aldian" ekiten diola populazioa berritzeari. Orobat esan zen ezen urtegiak eraikitzeak ez diela uzten angulei itsasotik Ebro ibaian gora egiten, eta hori dela-eta Departamentuak erabaki zuela Nafarroa erdialdeko eta Erriberako ibai nagusietako arrain-populazioa indartzea.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

1. Populazioa indartzeko jarduketeki ekin zitzaizenetik gaur arte, zenbat esku-hartze izan ditu guztira Ingurumen Departamentuak Nafarroako ibaietako angulen populazioa indartzeko?

2. Egin diren kontrolen ondorioz, egin al da emaitzei buruzko informazioa ematen duen azterlanik? Egin baldin bada, zer ondorio atera dira?

3. Ateratako ondorioei erreparatuta, eutsi al zaie 2000tik aitzina angulen populazioa indartzeko lanei? Zein izan dira kopuruak? Non egin dira? Zein ibaitan? Zein izan dira kostuak eta emaitzak?

4. Eutsi eginen al zaie angulen populazioa indartzeko lanei hemendik aitzina? Zein ibaitan eta zein lekutan?

Auzi horri buruz dagoen beste edozein informazio osagarri ere jaso nahi dut.

Iruñean, 2004ko abenduaren 23an

Foru parlamentaria: José Luis Etxegarai Andueza

## Galdera, Foruzaingoko praktiketako funtzionarioei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MARÍA GRACIA IRIBARREN RIBAS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak egindako galdera, Foruzaingoko praktiketako funtzionarioei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari M.<sup>a</sup> Gracia Iribarren Ribasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Sozialisten taldeak jakin duenez, praktikak egiten ari diren Foruzaingoko funtzionarioei desegin egiten diete kontratua Nafarroako segurtasun eskolan prestakuntza ikastaroa bukatzen dutenean, harik eta Foruzaingoarean barruan lanpostu bat esleitzen zaien arte.

Gure ustez, egoera hori erabat ezohikoa, arauz kontrakoa eta beharbada legez kanpoko da, eta korporaziozko bidegabekeria ere bada, beste administrazio publikoetan praktikak egiten ari diren gainontzeko funtzionarioekin konparatuz gero.

Hori dela eta, Sozialisten taldeak hauxe jakin nahi du:

1. Zer foru arau edo xedapenetan oinarritzen da praktiketako funtzionarioen lan egoera?

2. Foruzaingoan praktikak egiten ari diren funtzionarioek, eskola bukatzen dutenetik esleitzen zaien lanpostuan hasten diren arte, ez dute ordainsaririk jasotzen, eta horren ondorioz, eskolan zeuden garaian baino lan egoera okerragoa bizi dute. Departamentuak ba al du horren berri?

3. Departamentuak ba al du arazo hori konpontzeko asmorik, halako moduz non eskola bukatzen denetik lanean hasi bitarteko epea ez dadin izan hilabetetik gorakoa?

4. Esan al dezake une honetan ea ikastaroak bukatu dituzten poliziak berehala hasiko diren lanean, sortu zaien lan arazoa konpon dadin?

Iruñean, 2004ko abenduaren 23an

Foru parlamentaria: M.<sup>a</sup> Gracia Iribarren Ribas

## Galdera, mendialdeko eskualdeetako abeltzaintza azpiegituretarako laguntzei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS ETXEGARAI ANDUEZA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak egindako galdera, mendialdeko eskualdeetako abeltzaintza azpiegituretarako laguntzei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### GALDERAREN TESTUA

Askotariko parlamentu-taldeko foru parlamentari José Luis Etxegarai Anduezak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Orain dela gutxi izan dugu abenduaren 13ko 370/2004 Foru Dekretuaren berri, zeinaren bidez indarrrik gabe uzten baita mendi eremuetako abeltzaintzako azpiegiturei laguntzeko 2005eko ekitaldirako deialdia, argudiatuz "ezinezkoa dela 2005eko deialdirako beharrezkoak diren tramite

guztiak 2005eko urtarrilaren 1a baino lehen egi-  
tea.”

Dekretu horren arabera, “laguntza horien trami-  
tazioak erakutsi du komeni dela behar berrietara  
egokitutako arau berriak ezartzea, eta bertan jaso-  
tzea, alde batetik, laguntzak emateko sistema berri  
bat eta, bestetik, onuradunen zerrenda egunera-  
tzea, beste udalerrri batzuei sartzeko aukera ema-  
nik.”

Gogoratu beharra dago “Mendi eremuetako  
abeltzaintzako azpiegitura lokalentzako laguntzak”  
2004ko kontusaila 2.200.000 eurokoa zela, eta  
horietarik 500.000 kendu direla iragan iraileko  
uholdeen ondorioz Erriberan kaltetu ziren azpiegi-  
turetako kalteak arintzeko.

“Mendi eremuetako abeltzaintzako azpiegitura  
lokalentzako laguntzak” 2005eko kontusaila,  
berriz, 1.900.000 eurokoa zen, baina zuzenketa  
bati esker 2.200.000 eurotako izan zedila onetsi  
zen. Edozein modutan ere, aipatu foru dekretu  
horren ondorioz aldi baterako eten da laguntzen  
deialdia.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

1. Zer zenbateko beteko da 2004. urtean “Mendi  
eremuetako abeltzaintzako azpiegitura lokalentza-

ko laguntzak” (71120/720001/7600/531204) kontu-  
sailetik?

2. Zer eskaera jaso dira laguntza horiek direla  
eta?

3. Zer eskaera ukatu dira? Eman horien zerren-  
da xehekatua.

4. Zein izan dira horietako bakoitza ukatzeko  
arrazoiak?

5. Zein dira laguntzak emateko sistema berri  
bat onesteko eta onuradunen zerrenda gaurkotze-  
ko arrazoiak?

6. Zein dira arrazoiak 2005. urtearen hasieran  
deialdi berria egin ahal ez izateko?

7. Nekazaritza Departamentuak noiz aurreikus-  
ten du egonen dela indarrean laguntzak emateko  
sistema berria?

8. Zer irizpide ezarri asmo ditu Nekazaritza  
Departamentuak laguntzak emateko sistema berri-  
rako?

Iruñean, 2004ko abenduaren 28an

Foru parlamentaria: José Luis Etxegarai  
Andueza

## **Galdera, Atlante Proiektuaren koordinazioari buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko  
urtarrilaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen  
tramitera onartzea foru parlamentari Patxi Telle-  
txea Ezkurra jaunak egindako galdera, Atlante  
Proiektuaren koordinazioari buruzkoa. Galdegileak  
idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamen-  
tuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari  
Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko Erregela-  
menduaren babesean, honako galdera hau aur-  
keztu dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari,  
Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentu-  
ak idatziz erantzun dezan:

Hezkuntza kontseilariaren urriaren 8ko  
279/2004 Foru Aginduak Atlante Proiektua ezar-  
tzen du Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleen  
oinarrizko gaitasunak hobetzeko.

Foru aginduan 2004-2005 ikasturtean aplika-  
tzeko egutegia eta honako arlo hauei buruzko  
neurriak garatzea ezartzen da:

– Haur eta Lehen Hezkuntzako curriculumetan  
oinarrizko gaitasunak lantzeko denbora.

– Koordinazio didaktikoa.

– Programazio didaktikoa.

– Ikastetxeko Irakurketa planak.

– Ebaluazioaren sistematizazioa.

– Ikastetxeetako kalitate planak.

– Aniztasunari arreta ematea eta horren ebalu-  
azioa.



- Familien parte-hartzea.
- Irakaslanaren balorazioa.
- Baliabideen eta ikastetxeko liburutegiaren erabilera.
- Irakasleentzako, familientzako eta abarrentzako orientazioa.

Departamentuko zer zerbitzuk koordinatuko ditu(zte) ikastetxeekin neurri horien aplikazioa eta garapena? Zer ondorio ekarriko ditu aurrekontu eta antolamendu mailan neurri horien aplikazioak?

Iruñean, 2004ko abenduaren 28an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

## **Galdera, Atlante Proiektua aplikatzeko egutegiari buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egindako galdera, Atlante Proiektua aplikatzeko egutegiari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Hezkuntza kontseilariaren urriaren 8ko 279/2004 Foru Aginduak Atlante Proiektua ezartzen du Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleen oinarrizko gaitasunak hobetzeko.

Foru aginduan 2004-2005 ikasturtean aplikatzeko egutegia eta honako arlo hauei buruzko neurriak garatzea ezartzen da:

– Haur eta Lehen Hezkuntzako curriculumetan oinarrizko gaitasunak lantzeko denbora.

– Koordinazio didaktikoa.

– Programazio didaktikoa.

– Ikastetxeko Irakurketa planak.

– Ebaluazioaren sistematizazioa.

– Ikastetxeetako kalitate planak.

– Aniztasunari arreta ematea eta horren ebaluazioa.

– Familien parte-hartzea.

– Irakaslanaren balorazioa.

– Baliabideen eta ikastetxeko liburutegiaren erabilera.

– Irakasleentzako, familientzako eta abarrentzako orientazioa.

Zein dira arestian aipatutako adierazleei aplikatzekoak diren neurri horiek? Zer denboralizazio izanen dute?

Iruñean, 2004ko abenduaren 28an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

## **Galdera, Atlante Proiektuan aipatzen diren orientabideei buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egindako galdera, Atlante Proiektuan aipatzen diren orientabideei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aur-

keztu dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Hezkuntza kontseilariaren urriaren 8ko 279/2004 Foru Aginduak Atlante Proiektua ezartzen du Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleen oinarritzko gaitasunak hobetzeko.

Foru aginduan ondokoa esaten da: "Atlante proiektuan arlo eta zikloak koordinatzeko organoen funtzionamendu egokirako behar diren orientazioak ematea aurreikusi da".

Zein dira orientazio horiek?

Iruñean, 2004ko abenduaren 28an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

## **Galdera, Atlante Proiektuaren akordio edo konpromisoari buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egindako galdera, Atlante Proiektuaren akordio edo konpromisoari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari,

Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Hezkuntza kontseilariaren urriaren 8ko 279/2004 Foru Aginduak Atlante Proiektua ezartzen du Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleen oinarritzko gaitasunak hobetzeko.

Foru aginduan ondokoa esaten da: "Hezkuntza Departamentuak ikastetxeetako akordio edo konpromisoak proposatuko ditu hezkuntza prozesuak nahiz emaitzak etengabe hobetzeko plan eta jarduketak egiteko".

Zer akordio edo konpromiso proposatuko ditu Hezkuntza Departamentuak?

Iruñean, 2004ko abenduaren 28an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

## **Galdera, Atlante Proiektuaren jarraipen batzordeari buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egindako galdera, Atlante Proiektuaren jarraipen batzordeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari,

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Hezkuntza kontseilariaren urriaren 8ko 279/2004 Foru Aginduak Atlante Proiektua ezartzen du Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleen oinarriko gaitasunak hobetzeko.

Foru aginduko 6. puntuak hauxe dio hitzez hitz: "Segimendu batzorde bat eratuko da, Hezkuntza Departamentuan proiektuarekin ikustekoa duten zerbitzuetako ordezkariak osatua. Batzordeak proiektuaren garapena, koordinazioa eta ebaluazioa begiratuko ditu."

Nortzuek osatuko dute segimendu batzorde hori? Zeintzuk izanen dira batzorde horren lanaren helburuak? Zein izanen da bileren maiztasuna?

Iruñean, 2004ko abenduaren 28an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

## **Galdera, Orkoiengo Argia FOSHEZarentzako dirulaguntza jaitsi izanari buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI FÉLIX M<sup>a</sup>TABERNA MONZÓN JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Félix M<sup>a</sup> Taberna Monzón jaunak egindako galdera, Orkoiengo Argia FOSHEZarentzako dirulaguntza jaitsi izanari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Félix

Taberna Monzónnek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Jakin dugunez, Nafarroako Gobernuak ikaragarri jaitsi du Orkoiengo Argia FOSHEZarentzako dirulaguntza. Zentro horrek 23.862 euroko dirulaguntza jaso zuen 2003an sexu hezkuntza, familia plangintza eta ginekologiako informazio eta presakuntzako programa eta ekintzetarako, eta 5.502 eurokoa 2004an.

Hori dela eta, hauxe jakin nahi dugu:

– Zeri zor zaio murrizketa drakoniar hori?

– Zer zenbateko aurreikusi da 2005erako?

Iruñean, 2005eko urtarrilaren 10ean

Foru parlamentaria: Félix Taberna Monzón

## **Galdera, farmazia politikari buruzko plan estrategikoaren inguruan lurralde arteko kontseiluan defenditutako jarrerari buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera, farmazia politikari buruzko plan estrategikoaren inguruan lurralde arteko kontseiluan defenditutako jarrerari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Mirandak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osasun kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Osasun ministroak farmazia politikari buruzko plan estrategikoa, Espainiako farmazia politikan aurrerapauso handia dakarrena, aurkeztu zuen Osasun Sistema Nazionalaren lurralde arteko Kontseiluan.

Gauza jakina da Alderdi Popularra plan horren erabat aurka dagoela, eta hortaz, farmazia politikari buruzko plan estrategikoaren helburu eta neu-

rrien aurka dagoela, ondokoan aurka alegia: eragingarritasun egiaztatuko farmakoen salneurria jaitea, % 4 2005ean eta % 2 2006an; farmazia laguntzaren hobekuntza; medikamentuen ontziak tratamenduaren iraupenari egokitzea; medikamentuen behar bezalako erabilera sustatzeko eta automedikazioa saihesteko kanpainak; medikamentu generikoen erabilerearen sustapena, eta abar.

Hori dela-eta, honakoa galdetzen dugu:

1. Zer jarrera izan du Osasun kontseilariak lurralde arteko kontseiluan Osasun ministroak aurkeztutako farmazia politikari buruzko plan estrategikoa dela eta?

2. Zer balorazio egin da departamentuan aipatu plana dela eta? Zer onura dakarkio herritarrari?

3. Egin al da edo egiteko al dago inolako ekarpen edo iradokizunik? Hala baldin bada, zein dira?

4. Planaren alde ala aurka dago departamentua?

5. Zer irizten dio kontseilariak Alderdi Popularrereko osasun kontseilarien jarrerari, alegia, Osasun Sistema Nazionalaren lurralde arteko Kontseiluetan izan duten jarrerari eta, zehazki, farmazia politikari buruzko planaren aurka agertu izanari?

Iruñean, 2005eko urtarrilaren 11n

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

## **Galdera, Nafarroako osasun gastuak 2004. urtean izandako bilakaerari buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera, Nafarroako osasun gastuak 2004. urtean izandako bilakaerari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Mirandak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osasun kontseilariak idatziz erantzun dezan:

1.- Zer bilakaera izan du osasun arloko gastuak Nafarroan hilez hil 2004an?

2.- Zer alde dago 2003ko gastuarekin?

3.- Zer politika ari dira aplikatzen gure erkidegoan osasun arloko gastua murrizteko? Nahiko al dira? Politika horiek emaitza positiboak ematen ari al dira?

4.- Generikoak erabiltzearen aldeko kanpainak areagotu behar direla uste al duzue?

5.- Ba al duzue daturik jakiteko herritarrek zebateraino ezagutzen dituzten medikamentu generikoak? Hala bada, zer datu dituzue?

Iruñean, 2005eko urtarrilaren 11n

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

**Galdera, Sodena enpresa publikoaren langile gastuei buruzkoa.***FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, Sodena enpresa publikoaren langile gastuei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**GALDERAREN TESTUA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Enpresa publikoek betekizun garrantzitsua dute, eta funtsezkoa da horien funtzionamendua hobezina izatea gizartearentzat onuragarriak bide diren parametroetan eragina izan dezaten, zeinek bere esparruan.

Halatan, haien izaera publikoak berekin dakartzan fiskalizazio publikoa eta kudeaketa arloko garrantzitasuna, sor litekeen edozein itzalgune ekiditeko.

Parlamentari honek dakienaren arabera, Sodena enpresa publikoko langileen gastuek 934.336 euro egiten dute, eta guztira bederatzi tituludun (lizentziatuak edo ingeniariak), administrari ofizial bat, lau laguntzaile eta garbitzaile bat dira.

Horri buruz, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Lehenbizi: Parlamentari honek duen informazioa, kontusailaren zenbatekoari eta langile kopuruari buruzkoa, zuzena ote den. Hala ez baldin bada, eskatzen du informazio hori gaurkotu edo zuzentzea.

Bigarren: nola zehazten den, Sodenaren menpeko lanpostu ordaindu bakoitzari dagokionez, "langileen gastuak" kontusailaren betetzea; alegia, zer soldata jaso duten, eta zein kontzeptutan, Sodenako plantillako kide guztiek.

Iruñean, 2005eko urtarrilaren 11n

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

## **Galdera, Sodena enpresa publikoaren administrazio kontseiluei buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, Sodena enpresa publikoaren administrazio kontseiluei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Enpresa publikoek betekizun garrantzitsua dute, eta funtsezkoa da horien funtzionamendua hobezina izatea gizartearentzat onuragarriak bide

diren parametroetan eragina izan dezaten, zeinek bere esparruan.

Halatan, haien izaera publikoak berekin dakartzan fiskalizazio publikoa eta kudeaketa arloko garrantzitasuna, sor litekeen edozein itzalgune ekiditeko.

Hori dela eta, hauxe jakin nahi dut Sodena enpresa publikoari buruz:

Lehenbizi: zenbat alditan bildu den administrazio kontseilua 2003ko azarotik 2004ko irailera bitarte.

Bigarren: epe horretan administrazio kontseiluetara nor joan den eta joan direnek dietatan zenbat diru jaso duten.

Hirugarren: zein egunetako administrazio kontseilutan onetsi ziren Sodenaren urteko kontuak eta kontseilu hartan nor egon zen.

Iruñean, 2005eko urtarrilaren 11n

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

## **Galdera, Gobernuko kideek parte hartu duten sozietate eta entitate publikoetako bilkurei buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, Gobernuko kideek parte hartu duten sozietate eta entitate publikoetako bilkurei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Errok, Legebiltza-

reko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Parlamentari honek idatziz erantzuteko galdera bat aurkeztu zuen 2004ko azaroaren 11n –erregistroan 02495 zenbakia darama–, Gobernuko kideek parte hartzen duten sozietate eta erakunde publiko guztietan jasotzen dituzten dieten zenbatekoari eta azken urtean joan diren bilkuren kopuruari buruzkoa.

Informazio hori osatzearren, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Lehenbizi: Gobernuko kideek zenbat bilkuran parte hartu duten Nafarroako Kutxan, CECAn nahiz dituzten ordezkartza karguak izateagatik

parte hartzen duten beste edozein sozietate edo entitatetan.

Bigarren: bilkura bakoitzean parte hartzeagatik jaso duten dieta.

Hirugarren: Nafarroako Gobernuako kide bakoitzak jasotako zenbateko guztiak.

Iruñean, 2005eko urtarrilaren 11n

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

## **Galdera, Natural Climate System enpresa publikoari buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, Natural Climate System enpresa publikoari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Enpresa publikoak administrazioari helburu jakin batzuk lortzen lagun diezaioketen tresnak dira, enpresa pribatuek izan ohi dituzten interes ekonomiko hutsez haratago.

Enpresa horien eraginkortasunaren gakoa jarduerak egiteko duten zalutasun eta bizitasunean datza, eta hortaz, publikoak direnez gero, alderdi

hori funtsezkoa da haien eraginkortasuna baloratzeko eta baliabideak behar bezala esleitzeko.

Hori dela eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du Natural Climate System enpresa publikoari buruz:

Lehendabizi.- NCS enpresa publikoak gaur arte egin eta bukatu dituen ekintzak eta jarduketak. Zehaztu kasuan kasuko kokapena, jabeak eta arkitekto arduradunak.

Bigarren.- Egiten ari diren ekintza eta jarduketak eta etorkizunerako aurrez ikusiak. Zehaztu kasuan kasuko kokapena, jabeak eta arkitekto arduradunak.

Hirugarren.- NCSk gaur arte lortu dituen dirusarrera zehatzak eta, kasua bada, etorkizunerako aurrez ikusitako dirusarrerak.

Laugarren.- NCSren Administrazio Kontseilua osatzen duten eta osatu duten pertsonak, zein sozietateren edo erakunderen izenean dauden, egindako bileren kopurua eta egunak, eta kontseilari bakoitzak jasotako dieten zenbatekoa.

Iruñean, 2005eko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

## **Galdera, Fiteroko monasterioko fatxada nagusian dagoen gerra zibilaren inguruko plakari buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS IZCO BIARGE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egindako galdera, Fiteroko monasterioko fatxada nagusian dagoen gerra zibilaren inguruko plakari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José

Luis Izco Biargek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak idatziz erantzun dezan:

– Fiteroko monasterioko fatxada nagusian Gerra Zibilaren inguruko plaka bat dago, Legebiltzar honek onetsitako Sinboloen Legea urratzen duena. Ba al du horren berri Nafarroako Gobernuak?

– Ba al du asmorik Nafarroako Gobernuak legedi indarduna bete dadin exijitzeko?

Iruñean, 2005eko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: José Luis Izco Biarge

## **Galdera, Ekonomia eta Ogasun departamentuak 2004an udalei kapital transferentzia gisa emandako diru kopuruei buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS IZCO BIARGE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egindako galdera, Ekonomia eta Ogasun departamentuak 2004an udalei kapital transferentzia gisa emandako diru kopuruei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José

Luis Izco Biargek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak idatziz erantzun dezan:

– Zenbat diru jaso du Nafarroako udal bakoitzak zure departamentuaren eskutik 2004an, zuzenean nahiz mankomunitate, partzuergo eta abarren bitartez, kapital transferentziak direla-eta? Zehaztu herriaren izena, departamentua, transferitu edo diruz lagundutako zenbatekoa eta zein izan den atenditu den obra, zerbitzu edo azpiegitura.

Iruñean, 2005eko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: José Luis Izco Biarge



## **Galdera, Toki Administrazioko Departamentuak 2004an udalei kapital transferentzia gisa emandako diru kopuruei buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS IZCO BIARGE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egindako galdera, Toki Administrazioko Departamentuak 2004an udalei kapital transferentzia gisa emandako diru kopuruei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José

Luis Izco Biargek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Toki Administrazio kontseilariak idatziz erantzun dezan:

– Zenbat diru jaso du Nafarroako udal bakoitzak zure departamentuaren eskutik 2004an, zuzenean nahiz mankomunitate, partzuergo eta abarren bitartez, kapital transferentziak direla-eta? Zehaztu herriaren izena, departamentua, transferitu edo diruz lagundutako zenbatekoa eta zein izan den atenditu den obra, zerbitzu edo azpiegitura.

Iruñean, 2005eko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: José Luis Izco Biarge

## **Galdera, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak 2004an udalei kapital transferentzia gisa emandako diru kopuruei buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS IZCO BIARGE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egindako galdera, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak 2004an udalei kapital transferentzia gisa emandako diru kopuruei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José

Luis Izco Biargek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak idatziz erantzun dezan:

– Zenbat diru jaso du Nafarroako udal bakoitzak zure departamentuaren eskutik 2004an, zuzenean nahiz mankomunitate, partzuergo eta abarren bitartez, kapital transferentziak direla-eta? Zehaztu herriaren izena, departamentua, transferitu edo diruz lagundutako zenbatekoa eta zein izan den atenditu den obra, zerbitzu edo azpiegitura.

Iruñean, 2005eko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: José Luis Izco Biarge

## **Galdera, Hezkuntza Departamentuak 2004an udalei kapital transferentzia gisa emandako diru kopuruei buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS IZCO BIARGE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egindako galdera, Hezkuntza Departamentuak 2004an udalei kapital transferentzia gisa emandako diru kopuruei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José

Luis Izco Biargek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Hezkuntza kontseilariak idatziz erantzun dezan:

– Zenbat diru jaso du Nafarroako udal bakoitzak zure departamentuaren eskutik 2004an, zuzenean nahiz mankomunitate, partzuergo eta abarren bitartez, kapital transferentziak direla-eta? Zehaztu herriaren izena, departamentua, transferitu edo diruz lagundutako zenbatekoa eta zein izan den atenditu den obra, zerbitzu edo azpiegitura.

Iruñean, 2005eko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: José Luis Izco Biarge

## **Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak 2004an udalei kapital transferentzia gisa emandako diru kopuruei buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS IZCO BIARGE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egindako galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak 2004an udalei kapital transferentzia gisa emandako diru kopuruei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José

Luis Izco Biargek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Kultura eta Turismo kontseilariak idatziz erantzun dezan:

– Zenbat diru jaso du Nafarroako udal bakoitzak zure departamentuaren eskutik 2004an, zuzenean nahiz mankomunitate, partzuergo eta abarren bitartez, kapital transferentziak direla-eta? Zehaztu herriaren izena, departamentua, transferitu edo diruz lagundutako zenbatekoa eta zein izan den atenditu den obra, zerbitzu edo azpiegitura.

Iruñean, 2005eko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: José Luis Izco Biarge

## **Galdera, Osasun Departamentuak 2004an udalei kapital transferentzia gisa emandako diru kopuruei buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS IZCO BIARGE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egindako galdera, Osasun Departamentuak 2004an udalei kapital transferentzia gisa emandako diru kopuruei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José

Luis Izco Biargek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Osasun kontseilariak idatziz erantzun dezan:

– Zenbat diru jaso du Nafarroako udal bakoitzak zure departamentuaren eskutik 2004an, zuzenean nahiz mankomunitate, partzuergo eta abarren bitartez, kapital transferentziak direla-eta? Zehaztu herriaren izena, departamentua, transferitu edo diruz lagundutako zenbatekoa eta zein izan den atenditu den obra, zerbitzu edo azpiegitura.

Iruñean, 2005eko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: José Luis Izco Biarge

## **Galdera, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak 2004an udalei kapital transferentzia gisa emandako diru kopuruei buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS IZCO BIARGE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egindako galdera, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak 2004an udalei kapital transferentzia gisa emandako diru kopuruei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José

Luis Izco Biargek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariak idatziz erantzun dezan:

– Zenbat diru jaso du Nafarroako udal bakoitzak zure departamentuaren eskutik 2004an, zuzenean nahiz mankomunitate, partzuergo eta abarren bitartez, kapital transferentziak direla-eta? Zehaztu herriaren izena, departamentua, transferitu edo diruz lagundutako zenbatekoa eta zein izan den atenditu den obra, zerbitzu edo azpiegitura.

Iruñean, 2005eko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: José Luis Izco Biarge

## **Galdera, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak 2004an udalei kapital transferentzia gisa emandako diru kopuruei buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS IZCO BIARGE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egindako galdera, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak 2004an udalei kapital transferentzia gisa emandako diru kopuruei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José

Luis Izco Biargek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak idatziz erantzun dezan:

– Zenbat diru jaso du Nafarroako udal bakoitzak zure departamentuaren eskutik 2004an, zuzenean nahiz mankomunitate, partzuergo eta abarren bitartez, kapital transferentziak direla-eta? Zehaztu herriaren izena, departamentua, transferitu edo diruz lagundutako zenbatekoa eta zein izan den atenditu den obra, zerbitzu edo azpiegitura.

Iruñean, 2005eko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: José Luis Izco Biarge

## **Galdera, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak 2004an udalei kapital transferentzia gisa emandako diru kopuruei buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS IZCO BIARGE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egindako galdera, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak 2004an udalei kapital transferentzia gisa emandako diru kopuruei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José

Luis Izco Biargek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak idatziz erantzun dezan:

– Zenbat diru jaso du Nafarroako udal bakoitzak zure departamentuaren eskutik 2004an, zuzenean nahiz mankomunitate, partzuergo eta abarren bitartez, kapital transferentziak direla-eta? Zehaztu herriaren izena, departamentua, transferitu edo diruz lagundutako zenbatekoa eta zein izan den atenditu den obra, zerbitzu edo azpiegitura.

Iruñean, 2005eko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: José Luis Izco Biarge

## **Galdera, Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentuak 2004an udalei kapital transferentzia gisa emandako diru kopuruei buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS IZCO BIARGE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egindako galdera, Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentuak 2004an udalei kapital transferentzia gisa emandako diru kopuruei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José

Luis Izco Biargek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariak idatziz erantzun dezan:

– Zenbat diru jaso du Nafarroako udal bakoitzak zure departamentuaren eskutik 2004an, zuzenean nahiz mankomunitate, partzuergo eta abarren bitartez, kapital transferentziak direla-eta? Zehaztu herriaren izena, departamentua, transferitu edo diruz lagundutako zenbatekoa eta zein izan den atenditu den obra, zerbitzu edo azpiegitura.

Iruñean, 2005eko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: José Luis Izco Biarge

## **Galdera, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak 2004an udalei kapital transferentzia gisa emandako diru kopuruei buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS IZCO BIARGE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egindako galdera, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak 2004an udalei kapital transferentzia gisa emandako diru kopuruei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José

Luis Izco Biargek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak idatziz erantzun dezan:

– Zenbat diru jaso du Nafarroako udal bakoitzak zure departamentuaren eskutik 2004an, zuzenean nahiz mankomunitate, partzuergo eta abarren bitartez, kapital transferentziak direla-eta? Zehaztu herriaren izena, departamentua, transferitu edo diruz lagundutako zenbatekoa eta zein izan den atenditu den obra, zerbitzu edo azpiegitura.

Iruñean, 2005eko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: José Luis Izco Biarge

## Galdera, 2004. urteko prestakuntza planari buruzkoa.

### FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Beloso jaunak egindako galdera, 2004. urteko prestakuntza planari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Bellosok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak prestatutako 2004ko prestakuntza planak Nafarroako administrazio publikoetako langileei zuzendutako zenbait prestakuntza jarduera eta ikastaro egitea jasotzen zuen. Ondoko ikastaroak eskaini ziren zehazki: politika orokorreko edo departamentuetako politikei laguntzeko prestakuntza-jardueren atalean, 57 ikastaro (1.071 plaza, gehi parte-hartzaile kopurua zehazten ez zuten zenbait ikastarotakoak); 7 ikastaro berriazko Europako hizkuntzetan, eta beste ikastaro orokor batzuk, estentsiboak, bertaratze partzialekoak eta mantentzekoak ingelesez, frantsesez eta alemaneraz

(plaza kopurua zehaztu gabe), euskarazko berriazko prestakuntza teknikorako 8 ikastaro gehi euskarazko prestakuntza orokorreko beste batzuk: estentsiboak, trinkoak, udako trinkoak, EGA, nor bere kasa ikastekoak, alfabetatzekoak, mintza praktikakoak eta udako ikastaroak (plaza kopurua zehaztu gabe); eta azkenik suhiltzaileentzako 3 ikastaro, foruzaintzako 20, udaltzaintzako 36 eta babes zibilerako 7, horiek denak Segurtasun Eskolan irakatsiak, plaza kopurua zehaztu gabe.

2004ko ekitaldia bukatuta, Nafarroako Gobernuak ondoko informazioa ematea nahi dugu, prestakuntza plan horren betetzea ebaluatu ahal izateko:

– Prestakuntza planean aurreikusitako prestakuntza jarduera eta ikastaroetarik zenbat eman diren egiazki, eta horietara joan den ikasle kopurua.

– Prestakuntza planean aurreikusitako prestakuntza jarduera eta ikastaroetarik zenbat gelditu diren egin gabe. Adierazi zer ikastaro diren, zenbat plaza aurreikusten ziren eta zergatik ez diren egin.

– Zenbat langilek eskatu zuten ikastaroetan parte hartzea.

– 2004ko prestakuntza planean hasiera batean aurreikusitako jardueren kostu osoa, eta egiazki egin direnen kostu osoa. Adierazi zein kontusailen kargura ordaindu diren.

Iruñean, 2005eko urtarrilaren 14an

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Beloso

## **Galdera, Salamancan egin den “Espainiako kultur ondarearen batasunari buruzko lan jardunaldia” delakoari buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS ETXEGARAI ANDUEZA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak egindako galdera, Salamancan egin den “Espainiako kultur ondarearen batasunari buruzko lan jardunaldia” delakoari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Askotariko parlamentu-taldeko foru parlamentari José Luis Etxegarai Anduezak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Berriki, Nafarroako Gobernuako Kultura kontseilari Juan Ramón Corpas jauna Espainiako kultur ondarearen batasunari buruzko jardunaldi batzuetan izan da Salamancan. Jardunaldietarako deia Gaztela eta Leongo Juntak egin zuen, eta PP eta UPNk gobernatzen dituzten autonomia erkidegoetako ordezkariak baino ez ziren bertaratu.

Horri buruz Corpas jaunak adierazi zuen Nafarroak ez duela eskatuko Estatuko erakundeetan dauden ondare-ondasunak edo agiriak itzultzeko.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

1. Hartu al du Nafarroako Gobernuak erabakirik zeinaren bidez uko egiten zaion konfiskatuak diren eta Estatuko erakundeetan dauden ondare-ondasunak edo agiriak itzultzeko eskatzeari?

2. Hartu al du Nafarroako Gobernuak erabakirik zeinaren bidez uko egiten zaion konfiskatua den eta Gerra Zibileko Artxibo Nagusian gordeta dagoen agiriren bat itzultzeko eskatzeari?

3. Kataluniako Generalitateak 1983tik 1986ra bitarte sailkatu zituen Generalitatearen agiriak, Gerra Zibileko Artxibo Nagusian zeudenak, eta horiek mikrofilmatzeko prozesua 1993an bukatu zuen. Ba al du Nafarroako Gobernuak Nafarroatik datozen eta aipatu artxiboan gordeta dauden agiriari buruzko azterlanik edo zerrendarik? Hala baldin bada, agiri horien kopia eta zerrenda zehatza jaso nahi dugu.

4. Halako azterlanik ez badago, azal al dezake Kultura kontseilari jaunak zergatik iragarri zuen adierazpen publiko batean Nafarroak uko egin diola agiriak eskatzeari agiri horiek zer agiri diren jakin gabe?

5. Halako azterlanik ez badu, ba al du asmorik Nafarroako Gobernuak Nafarroatik datozen eta aipatu artxiboan gordeta dauden agiriari buruzko azterlanik edo zerrendarik egiteko?

6. Ba al du asmorik Nafarroako Gobernuak agiri horiek mikrofilmatzeko?

Iruñean, 2005eko urtarrilaren 18an

Foru parlamentaria: José Luis Etxegarai Andueza

## **Galdera, terrorismoak kaltetutakoei emandako laguntzei buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egindako galdera, terrorismoak kaltetutakoei emandako laguntzei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako Gobernuak, maiatzaren 15eko 100/1985 Foru Dekretuaren bidez, terrorismoak kaltetutakoentzako dirulaguntzak arautu zituen. Dirulaguntzak Nafarroako aurrekontu orokorretan xede horretarako urtero sartzan diren kredituen

kargura emanen ziren, beste erakunde batzuek, batez ere Estatuko administrazioak, ezarritako gisa bereko laguntzen osagarri. Araubide hori aldatu egin zen aurrerago, ekainaren 23ko 189/1988 eta urriaren 27ko 254/1988 foru dekretuen bidez hain zuzen ere. Azken foru dekretu hori da egun indarrean dagoena.

Nafarroako Gobernuak honako galdera hauei erantzun diezaien nahi dugu:

– Azken bost ekitaldietan terrorismoak kaltetutakoei emandako laguntzen kopurua. Adierazi laguntza mota eta zenbateko osoak.

– Ikusita aipatu araudia onetsi zenetik denbora asko igaro dela, kontuan hartuta egungo egoera sozial eta politikoa bestelakoa dela eta arlo horri buruzko estatuko araudia aldatu dela (batez ere terrorismoaren biktimekiko elkartasunari buruzko urriaren 8ko 32/1999 Legearen kariaz), ba al du Gobernuak laguntzen araubide hori aldatzeko asmorik?

Iruñean, 2005eko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Miguel Izu Belloso

## **Galdera, Excavaciones Majo enpresari irekitako zehapen espedienteei buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak egindako galdera, Excavaciones Majo enpresari irekitako zehapen espedienteei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aman-

da Acedo Suberbiolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak idatziz erantzun dezan:

2005eko urtarrilaren 21eko 9. NAO-n argitara eman ziren erabaki proposamen bat eta 0956 zenbakiko foru agindua, Excavaciones Majo, SLU eta Excavaciones Majo, SL enpresei irekitako zehapen espediente banari buruzkoak.

Hori dela eta, hauxe jakin nahi da:

1.- Enpresa berari tramitatu al zaizkio bi espedienteak (157. zenbakikoa eta 132/04)? Zein enpresari, Excavaciones Majo SLU, Obras y Excavaciones Majo SL edo Excavaciones Majo SLri? Ba al da formazko akatsik, kasua bada ezartzen



den zehapena betearaztea eragotziko duenik edo largespena eragin dezakeenik?

2.- Zehapenak hondakin arriskutsuak ekoitzi eta biltegitzearekin buruzko araudia urratzeagatik ezarri dira, nahiz eta gero kudeaketa hobetu den. Hori horrela izaki, zergatik gertatu da largespena eta ondorioz ez da salatutako arau-haustea zehatu? Ez al da kalterik sortu ingurumenean? Jardue-

ra kutsadurarik eragin gabe egin ahal izateko baldintza guztiak betetzen al dira?

3.- Hondakin arriskutsuak isurtzeagatik proposatu da zehapenaren foru agindua. Birjauslea al da?

Iruñean, 2005eko urtarrilaren 24an

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola

## **Galdera, ingurumen arloko zehapen espedienteak ebatzi bitartean hartu beharreko neurriei buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak egindako galdera, ingurumen arloko zehapen espedienteak ebatzi bitartean hartu beharreko neurriei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Prebentzio-printzipioa araua da ingurumenaren alorrean, eta hortaz, ez da ulergarria jarduera kutsagarriek, ingurumenari kalte egitea ekiditeko beharrezkoak diren neurriak betetzen ez dituztenek, sortzen duten egoera, departamentuak ez baitu ezartzen kautelazko neurririk egiazko arrisku horiek ekiditeko.

Ematen du egiaztatuta dagoela ezen Zuñigan dagoen ahate-granjak kontrolrik gabeko isurketak

egiten dituela eta ez dituela behar bezala kudeatzen hondakin arriskutsuak. Hartara, egoera kezagarria izan daiteke; izan ere, dauden informazioen arabera ez du ematen zehapen espedienteak tramitatzetik haratago joaten denik, erran nahi baita ez dela jarduera aldi baterako eteten, jarduera hori egin ahal izateko ezarritako baldintzetara egokitzen den bitartean.

Horregatik, hauxe jakin nahi dugu:

1.- Abian diren zehapen espedienteak tramitatu eta ebatzi bitartean, zer neurri hartzeko asmoa du departamentuak jarduera horretan minden kontrolrik gabeko isurketak nahiz hondakin arriskutsuen biltegitze desegokiak ekidite aldera?

2.- Ingurumen Departamentuaren ustez, aipatu espedienteen ondoriozko zehapena ezartze hutsarekin agortzen al da arlo horretan duen erantzukizuna, ala bestelako neurriak hartuko ditu?

3.- Ezarritako zehapenetik lor litekeen dirua eragin diren kalteak konpontzeko erabiliko al da?

4.- Zer arau-haustek eragin zuen espediente bat irekitzea orain abian direnen aurretik? Noiz ireki zen? Preskribitu al du formazko akatsak zirela-eta administrazioarekiko auzietako salan errekurritu zen arau-hausteak? Zein dira akats horiek? Aztertu al da erantzukizuna espediente horretan? Artxibatuta al dago?

Iruñean, 2005eko urtarrilaren 24an

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola

## **Galdera, Nafarroako futbol selekzioak eta Marokokoak jokaturako partidaren antolakuntzan Nafarroako Gobernuak emandako laguntzari buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, Nafarroako futbol selekzioak eta Marokokoak jokaturako partidaren antolakuntzan Nafarroako Gobernuak emandako laguntzari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Iragan 2004ko abenduaren amaieran Nafarroako eta Marokoko selekzioen arteko partida jokatu

zen Sadar futbol zelaian. Parlamentari honek jakin duenez, Nafarroako Gobernuak parte-hartze zuzena izan zuen ekitaldi hura antolatzeko lanetan.

Horri buruz, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Lehenbizi: Zertan lagundu zuen Nafarroako Gobernuak gertaera hura antolatzeko lanetan?

Bigarren: Partida haren aurrekontu osoa. Adierazi zein izan ziren Nafarroako Gobernuaren ekarpenak, zehazturik zertarako izan ziren.

Hirugarren: Eman partida ikustera joan zirenen kopurua, sarreren prezioa eta bildutako diru zenbatekoa.

Laugarren: Nafarroako Gobernuak publizitatean gastatutakoa, zehazturik komunikabideak, banderak eta abar.

Iruñean, 2005eko urtarrilaren 25ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

## **Galdera, 2005eko lehen bilkuraldian zenbait foru lege proiektu igortzeari buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egindako galdera, 2005eko lehen bilkuraldian zenbait foru lege proiektu igortzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Bellosok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak, parlamentari honek egindako ahozko galdera bati erantzunez, Gobernuak legegintzaldi honetan igorri nahi dituen foru lege proiektuei buruz informatu zuen Nafarroako Parlamentuak 2004ko urri-

aren 14an egin zuen Osoko Bilkuran. Zehazki, 2004ko bigarren bilkuraldian (iraila-abendua) ondoko sei foru lege proiektuak onetsi eta igortzeko asmoa zegen: babes zibilari eta larrialdietarako laguntzari buruzkoa, Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluari buruzkoa, aurrezki kutxen zuzendaritza organoei buruzkoa, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseiluari buruzkoa, adingabeentzako laguntza integralari buruzkoa eta Familia ugariei buruzko Foru Legea aldatzekoa.

Gobernuak aipatu foru lege proiektuetarik bat bera ere onetsi gabe bukatu zen bilkuraldi hori, eta 2005eko lehen bilkuraldia hastear gaudelarik ez da bat bera ere heldu Nafarroako Parlamentura. Halatan, zaila izanen da horiek denak aipatu bilkuraldian eztabaidatu eta onetsi ahal izatea.

Bestalde, kontuan izan behar da Lehendakari-tza, Justizia eta Barne kontseilariak osoko bilkura berean iragarri zuela 2005eko lehen bilkuraldian (otsaila-ekaina) Nafarroako Gobernuak ondoko

zortzi foru lege proiektuak igortzeko asmoa zuela: Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzen dituen Foru Legea aldatzekoa, Nafarroaren ondareari buruzkoa, Ehizari buruzko Foru Legea aldatzekoa, kultur ondareari buruzkoa, Bolondres lanari buruzko Foru Legea aldatzekoa, taxiari buruzkoa, landareen osasunari buruzkoa eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsari buruzkoa.

Hori dela eta, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentura 2005eko lehen bilkuraldian igorri nahi dituen foru lege proiektuei buruzko informazioa jaso nahi dugu; jakin nahi dugu zertan den aipatu proiektuetako bakoitza, hala hasiera batean 2004an igortzekoak zirenak nola aurtengo lehen bilkuraldian igortzekoak zirenak, eta orobat jakin nahi dugu gaur egun zein datatan pentsatzen duzuen onetsi eta igorriko direla Legebiltzarrerara.

Iruñean, 2005eko urtarrilaren 26an

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Beloso

## **Galdera, zilbor hestearen trasplanteari buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egindako galdera, zilbor hestearen trasplanteari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Hedabideetan orain dela gutxi agertutako berri baten arabera, zilbor hestearen trasplantea leuzemiaren aurkako terapia gisa finkatzen ari da.

Informazio horrek orobat dio ezen zilbor hesteko odolaren trasplanteak bereziki agintzen direla haurren eta 40 kilotik beherako helduen kasuan. Estatistikak garbi erakusten duenez, trasplante horiek haziz doaz urtez urte, eta hasiak dira emaitza onak ikusten, baita helduen artean ere.

Argitaratutako informazio horren arabera, zilbor hesteko odola oso aberatsa da, odol arruntaren alboan, zelula ametan.

Osasun Departamentuak ondoko informazioa ematea nahi dugu:

– Osasun Departamentua lanean ari al da zilbor hesteko odol zelula mota horiek lortzeko?

– Une honetan teknika hori baliatzen ez baldin badu, ba al du halakorik egiteko asmorik?

– Osasun Departamentuak egoki ikusten al du informazio eta sensibilizazio kanpaina bat egitea gisa horretako odolaren emaileen unitate bat sortzeko?

Iruñean, 2005eko urtarrilaren 24an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

## **Galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Argentinara eginiko bidaiari buruzkoa.**

### *ERRETIRATUTAKO GALDERA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak eginiko galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Argentinara eginiko bidaiari buruzkoa, erretiratu izanaren jakitun dagoela adieraztea. Galdera hori 2004ko abenduaren 20ko 109. Nafa-

roako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2005eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>	<b>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete .....	42,35 euro
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko .....	1,10 »
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko .....	1,27 »